

ABENDUA

1. ERABAKIA: AUTOKIDETZA GUNEAREN ANTOLAMENDU LANETARAKO MERKATU EMENDAKINAREN IZENPETZEA
(1.1 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du 2023ko agorrilaren 3an merkatu publikoa esleitua izan dela RD 918 errepide bazterreko autokidetza gunearen antolatzeko obrentzat, orotara 70 998.50 euroren truke, zergarik gabe (ZG).

Azaldu du honako aldaketak egin behar zaizkiola merkatuari:

- Vins de Vincent saltokiaren luzeran dauden aparkatzeko lekuak 50 zentimetroz mugitzea sustengu pareta babesteko.
- Euri uren hoditeriaren diametro aldaketa: 315cm 200cm-ren ordean, eta sarbideak betoinez egitea hoditeria horien babesteko
- Herriko bidea beste 20 metroz antolatzea
- Euri uren sarerako lau leihatila gehiago ezartzea
- Oinezkoen zebra-bidean espaloia galtzadaren nibelean ezartzea

Zehaztu du autokidetza gunearen antolamendu lanen zenbateko orokorra 76 997.60 eurokoa izanen dela ZG.

Auzapezak aurkeztu kontraturako emendakin proiektua entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, lehenago aipatu emendakina izenpetzeko.

2. ERABAKIA: URZAIZ ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ESLEIPENA
(7.5.2 nomenklatura)

Auzapezak Urzaiz elkarteak herriari egin dirulaguntza eskaera aurkeztu du. Auzapezak zehaztu du elkarteak Hondamendia izeneko antzerkia emanen duela Ortzaizen Euskararen urtaroaren kariatara.

Auzapezak proposatu du Urzaiz elkarteari 2 000 euroko dirulaguntza esleitzea antzerki emanaldi horren diruztatzeko.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak,

- ERABAKI DU, Urzaiz elkarteari 2 000 euroko dirulaguntza ematea.

3. ERABAKIA: FOTOKOPIEN KUDEAKETA-EGITURAREN DEUSEZTATZEA
(7.10 nomenklatura)

Auzapezak biltzarkideei oroitarazi die 1988ko martxoaren 11ko ordenantzak, zeina 2013ko uztailaren 19ko ordenantzaz aldatu baitzen, fotokopien ordainarazteko kudeaketa-egitura bat sortu zuela.

Azaldu du, zerbitzua herriko etxeko idazkaritzan ezarri zela, herriko biztanleei fotokopia zerbitzua eskaintzeko, une hartan ez baitzen halako zerbitzua eskaintzen zuen lekurik.

Gaur egun, ohartu gara fotokopien kudeaketa-egituraren diru sartzeak biziki apalak direla (urtean 200 euro baino gutiago).

Auzapezak adierazi du Altxortegi Publikoak urteak daramatzala herriei galdegiten baliagarritasun guti edo batere ez duten kudeaketa-egiturak deuseztatzea.

Horiek horrela, eta gauzak ahal bezainbat sinplifikatzeko, Auzapezak biltzarkideei proposatu die "fotokopiak" kudeaketa-egitura deuseztatzea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU, fotokopien kudeaketa-egitura deuseztatzea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari kontulariaren gaitzeko deuseztatze ekintzak burutu ditzan.

4. ERABAKIA: TERRENO BATEN ZATITZEKO AURRETIKO DEKLARAZIOA (2.2 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du, herriak ofiziale eremuko F 558 eta F 1219 lur sailak saltzeko xedea duela, Ortzaizeko enpresa batek bere biltegia eta bi bulego egin ditzan

Biltzarrari azaldu dio aurretiko deklarazioa aurkezteko baimena eman behar diola.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari F 558 eta F 1219 lur sailen zatitzeko aurretiko deklarazioa aurkezteko.

5. ERABAKIA: EZ OHIKO EROSAHALMEN SARI BATEN EMATEA (4.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2023ko urriaren 31ko 2023-1106 du 31 frantses dekretuak aukera ematen diela lurralde kolektibitate bateko erabakiguneei eta horien egitura publikoei, beren langile publikoentzako « ez ohiko erosahalmen sari baten » emateko.

Herri Biltzarrari dagokio sari horren emateaz eta zenbatekoaz deliberatzea.

Lurraldeko Gizarte Batzordearen (zeina Kudeaketa Zentroan baita) 2023ko azaroaren 9ko iritzia ikusirik:

1- ONURADUNAK

Saria eskuratzen ahalko dute, lurralde langileek (funtzionarioek eta zuzenbide publikoko kontratupekoek) eta Frantziako gizarte ekintza eta familien Kodeko L. 422-6 artikuluan zerrendatzen diren haurtzainak eta familia laguntzaileak, honako baldintzak betetzen dituztenean:

- 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen lurralde kolektibitate batean edo haren erakunde publiko batean izendatua edo lanean hasia izan beharra;
- 2023ko ekainaren 30ean oraindik lurralde kolektibitate edo haren egitura publikoarengandik soldata eskuratzea;
- 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitarte gehienez 39 000 euro gordin irabazi izana.

Saria ukan ezin dutenak:

- Balioaren partekatze saria ukan dezaketen langile publikoak;
- Lurralde kolektibitate batean edo haren egitura publiko batean lan ingurunean formakuntzan edo ikastaroan diren ikasle eta estudianteak, eta Frantziako hezkuntza Kodeko L. 124-1 artikuluko bigarren lerrokadan finkatu ikastaro hitzarmena dutenak.

2- ZENBATEKOA

Sariaren zenbatekoa honela zehaztu da:

2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era ukan lansari gordina	Erosahalmen ez ohiko sariaren gehieneko zenbateko
23 700 €tik beheiti	800 €
23 700 € eta 27 300 € artean	700 €
27 300 € eta 29 160 € artean	600 €
29 160 € eta 30 840 € artean	500 €
30 840 € eta 32 280 € artean	400 €
32 280 € eta 33 600 € artean	350 €
33 600 € eta 39 000 € artean	300 €

Erreferentziazko denbora tartean eskuratuko duten lansari gordina Frantziako 2023ko urriaren 31ko 2023-1106 dekretuko 3. eta 6. artikuluetako baldintzetan finkatuko da.

3- LANALDIAREN ETA ENPLEGU IRAUPENAREN ARABERAKO MODULAZIOA

Saria lanaldiaren proportzioan izanen da (denbora ez oso eta denbora partziala).

4- BANAKAKO ESLEIPENA

Saria eskuratuko dute 2023ko ekainaren 30ean herriko etxean langile zirenak eta harengandik ordainduak, baldin eta gorago zehaztu baldintzak betetzen badituzte.

Esleipena banakakoa izanen da eta Auzapezak bederazka ordenantza eginen du.

5- SARIAREN ORDAINTZEA ETA METATZEA

Saria aldi bakarrear ordainduko da 2024ko ekainaren 30a aitzin.

Sari hau langileek eskuratzen dituzten beste sari edo ordainsariekin meta daiteke.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

KONTUAN IZANIK - frantses estatuaren 2023ko urriaren 31ko 2023-1106 du 31 dekretua, zeinak lurraldeko funtzio publikoko langile publiko batzuentzako ez ohiko erosahalten saria sortzen baitu,

ONARTU DITU - «ez ohiko erosahalten sariaren» printzipioak eta zenbatekoak, lehenago zehaztu bezala,

ZEHAZTU DU - kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

6. ERABAKIA: HERRIKO LANGILE BAT EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN ESKURA EZARTZEA 2024 URTARRILERAKO:

(4.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio herriko langile bat Euskal Hirigune Elkargoaren esku ezartzea erabaki duela, Ortzazeko aisialdi guneko animatzaile eginkizunen betetzeko, 2024ko urtarrilerako.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari herriko langilea eskura ezartzeko hitzarmena izenpetzeko eta horretarako egin behar diren izapide guztien egiteko.

7. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BATEN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.1.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio Eguberriko askariaren kariatara Arrosako eskola publikoko haurrak Ortzazera garraiatzeko denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garraioa 2023ko martxoaren 22an egingen da, ostiralarekin, 14:30etatik 16:30ak arte.

Enplegua 2023ko abenduaren 22ko egunarentzat sortuko da.

Lan denbora bi orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1º artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jardura emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu dakioke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

- **ERABAKI DU** - 2023ko abenduaren 22rako, denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea, 2 oreneko iraupeneko,
 - enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.
- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko.
- **ONARTU DITU**, Auzapezaren proposamen guztiak.
- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

8. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ANIMAZIO LAGUNTZAILE ENPLEGU BATEN LAN DENBORAREN ALDATZEA *(4.1.2 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio behin behineko eta denbora ez osoko animazio laguntzaile enplegu baten asteko lanaldia aldatu behar dela (5.32 oren astean, urtera eramanak). Izan ere, enplegu hori sortu zen haur elbarritu bat eguerdiko atsedenaldian laguntzeko eskola garaiko astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan. Alabaina, haurrak astelehen eta ostiraletan baino ez du beharko laguntza hori.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU, 2023ko abenduaren 6tik goiti:

- denbora ez osoko eta behin behineko animazio laguntzaile lanpostua kentzea (5.32 oren astean, urtera eramanak),
- behin behineko eta denbora ez osoko animazio laguntzaile lanpostu berria sortzea (2.64 oren astean, urtera eramanak),

ZEHAZTU DU, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari lan kontratuari emendakina izenpetzeko.